



Nafarroako Herri Kirol Federazioa

Mourges etorbidea, 32 Behea

31740 Doneztebe

Tel. 948 450900 - 622 368428

www.herrikirolaknafarroa.org

NAFARROAKO XXXVIII KIROL JOKOAK (Proba Konbinatua eta Sokatira 8X8)

Nafarroako Kirol Jokoak (Proba konbinatua eta Sokatira 8x8) 2.025eko martxoaren 16etik apirilaren 13ra ospatuko dira.

Guztira 5 jardunaldi jokatuko dira:

Lehen jardunaldia: Martxoaren 16an (11:00) igandea

Bigarren jardunaldia: Martxoaren 23an (11:00) igandea

Hirugarren jardunaldia: Martxoaren 30ean (11:00) igandea

Laugarren jardunaldia: Apirilaren 6an (11:00) igandea

Finalak: Apirilaren 13an (11:00) igandea

Izena emateak Nafarroako Herri Kirol Federazioan egin behar dira urtarrilaren 31a baino lehen:

Telefonoak: 948 450900 / 622 368428

Email: info@herrikirolaknafarroa.org

Oharra: Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak garraioa (50 km edo gehiagoko joan-etorria denean) eta antolatzen diren jardunaldien kostoa bere gain hartzen du.

BALDINTZAK

Parte hartu ahal izateko, taldeak bete beharreko baldintzak:

- Kirol Elkarte bezala erregistratua egotea
- Planteatzen diren kategorietan parte hartzea
- Taldea osatzen duten kirolariak Nafarroan eskolatuak egotea edo bizilekua Nafarroan izatea
- Txapelketa hasi aurretik 90 euroko fiantza bat jartzea
- Kirolari bakoitzeko 7 euroko inskripzio-kuota bat ordaintzea
- Taldeko monitore, entrenatzaile eta laguntzaileek, Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Nagusiaren ziurtagiri negatiboa edukitzea.
- **Klubak "Adingabeak babesteko ordezkaria" izendatzea eta protokoloa prestatzea** (Haurrak eta nerabeak indakeriaren aurrean babesteari buruz, ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak dioena betetzeko).
- Kirol jardueretan presentzia fisikoa izan behar duten pertsona guztiek (begiraleak, entrenatzaileak eta boluntarioak) egiaztatu beharko dute lehen sorospentako prestakuntza dutela edo prestakuntza hori egiteko moduan egon beharko dutela NKJen edizio honetan.
- Taldeetako entrenatzaileek frogatu beharko dute 1. Mailako entrenatzaile ikastaroa egina dutela (gutxienez atal amankomuna). Ezinezkoa bada, entrenatzaile tituludun baten babesaren pean egon beharko dute, eta NKJen XXXVIII. edizioan zehar aipaturiko ikastaroa egin beharko dute

KATEGORIAK

Nafarroako Kirolaren Institutuarekin batera urtero antolatzen diren Kirol Joko hauetan bi modalitatetako txapelketak jokatzen dira: Sokatira eta Proba Konbinatua.

Txapelketa hauetan taldeka hartu behar da parte (talde mistoak). Talde bakoitzean gutxienez neska batek parte hartu beharko du.

Guztira hiru kategoria antolatuko dira:

- Kimu Maila (2013-2014 urteetan jaiotakoak) * Konbinatuan bakarrik
- Haur Maila (2011-2012 urteetan jaiotakoak)
- Kadete maila (2009-2010 urteetan jaiotakoak)



Nafarroako Herri Kirol Federazioa
Mourges etorbidea, 32 Behea
31740 Doneztebe
Tel. 948 450900 - 622 368428
www.herrikirolaknafarroa.org

KATEGORIA BAKOITZEAN EGIN BEHARREKO PROBAK

KIMUAK

PROBA KONBINATUKO LANAK (3 txanda):

PROBA	PARTAIDE KOPURUA	EGIN BEHARREKO LANA
Lokotx biltzea	1	8 kozkor, metro bateko tarteaz jarrita
Txingak	1	80 m. 3 kg.ko txingekin (2 joan-etorri 20 metrotako zatian)
Zakulariak	3	80 m. 6 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)
Korrikalaria	1	160 metro (bi buelta plazari)

**** Kimuek ez dute parte hartuko Sokatiran**

HAURRAK

PROBA KONBINATUKO LANA (3 txanda):

PROBA	PARTAIDE KOPURUA	EGIN BEHARREKO LANA
Lokotx Biltzea	1	10 kozkor, metro bateko tarteaz jarrita
Txingak	1	80 m. 5 kg.ko txingekin (2 joan-etorri 20 metrotako zatian)
Zakulariak	3	80 m. 10 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)
Korrikalaria	1	160 m. (2 itzuli)
Arpana	2	70 zm.ko 2 korte

SOKATIRAKO PISUA: 480 kg.

KADETEAK

PROBA KONBINATUKO LANA (3 txanda):

PROBA	PARTAIDE KOPURUA	EGIN BEHARREKO LANA
Koxkoak	1	12 kozkor, metro bateko tarteaz jarrita
Txingak	1	60 m. 10 kg.ko txingekin (2 joan-etorri 15 metrotako zatian)
Zakulariak	3	80 m. 13 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)
Korrikalaria	1	240 m. (3 itzuli)
Arpana	2	70 zm.ko 3 korte

SOKATIRAKO PISUA: 540 kg.